



Zamudioko Kamara Korala

-2006 memoria-

- **OTSAILA: Bizkaiako Abesbatzen Astea.**

Begoñeko basilikan eskaintzen dira kontzertu hauek. Aurten XXXIII rena ospatu da. Kontzertu hau eskeintzerakoan, besteak beste, kontuan izaten doguz musikarien mendeurrenak .

Aurtengo kontzertua **otsailaren 9an** eta arratsaldeko 20:00retan eskaini genduan.

- **APIRILA: Larragoiti palazioa inaugurazioa**

Innevento Komunikazio enpresak, Zamudioko udalerako antolatutako Larragoiti palaziorako inaugurazio ekitaldian parte hartu dogu.

- **MAIATZA, EKAINA : Udaberriko kontzertuak**

Zamudioko kamara korala sortu zanetik Eusko Abeslari Txikien Elkartean eta gero Bizkaiko Abesbatzen Elkartean (BAE) dago.

BAEk eta bertoko koruak, BBKgaz batera, udaberriko kontzertuak deritzon saioak eskeintzen dabez.

Martxoa eta ekaina bitartean 83 abesbatz inguruk Bizkaian zehar kontzertu ezberdinak antolatu eta eskaintzen dabez.

Zamudioko Kamara Koralak udaberriko kontzertuetan leku honeetan parte hartu dau:

BILBAO: Maiatzaren 6an, arratsaldeko 20:00retan
Sta. Maria Goreti (Zurbaranbarri).

SONDIKA: Maiatzaren 13an, arratsaldeko 20:30etan
San Juan eleizan.

ZORNOTZA: Maiatzaren 20an, arratsaldeko 20:00etan
Zornotza Aretoan.

ZAMUDIO: Ekainaren 3an, arratsaldeko 20:30etan
San Martin de Arteaga eleizan.

GALDAMES: Ekainaren 10ean, arratsaldeko 20:00etan
San Esteban eleizan

Kontzertu guzti honeek herri bakoitzeko udaletxeen kolaborazioa izaten dabe. Zamudioko herriaren kasuan, egun horietan herriko Pazko jaiak izanda, datozen taldeei emoten jakien lunch-a, jai batzordeko presupuestotik eskaintzen da.



- **EKAINA: Bizkaiko Abesbatzen Egun Korala**

Bizkaiko Abesbatzen Elkarteak, ekainaren 11an Egun Korala ospatu eban. Aurten Sestaon izan da bertako *Orfeón de Sestaok* 100 urte betetzen daualako.

Egun koralean 1.800 abeslariz osatutako kontzertu haundi bat eskeintzen da.

- **EKAINA: Lagatzu Eguna**

Urtero legez, Lagatzu Zamudioko euskera alkarteak urteko bazkaria antolatu eban.

Egun horretan, ekainak 24an, Zamudioko Kamara Koralaria oroigarria eskaini eutsien Euskararen alde egiten dauan lanagatik. Bertan batu zirenei geuk idatzitako bertso bat abestu geuntsezan.

- **EKAINA: Urteroko taldeko irteera**

Taldekieok egun bateko irteera bategaz kurtso amaiera ospatu genduan. 2006ko irteera, ekainaren 25ean izan zan.

Errioxako San Millán de la Cogolla eta bertan dagoen Yuso eta Susoko monastegira joan ginen. Toki honetan dago lehen euskarazko idatzia "*izioqui duguguec aiutuezdugu*".

"*Códice y cantorales*" erakusketa ikusteko aukera izan genduan baita, musika gregoriano partiturak eta San Millán bertoko kantutegiak.

Eguerdian Eltziegora joan ginen eta arratsaldean bertako elizan kontzertu txiki bat eskaini genuen.

- **URRIA: EUSKADI KANTA kontzertua**

Nervion Taldeak antolatuta eta "Locos por la música" programa barruan, Derioko San Isidro eleizan kontzertu bat eskaini genuen urriaren 28an 20:00etan.

- **URRIA, AZAROA, ABENDUA: Ikastaroa**

Urteko azken hiru hilabeteetan, teknika ikastaroa izan dogu. Taldeak musika, arnasketa eta aho teknika landu dauz.

Hilean bi / hiru aldiz Nuria Orbea irakaslea etorri da talde lana egitera.



- **AZAROA: XVI San Martin kontzertua.**

Hamasei urte daroaz Zamudioko Kamara Koralak San Martin kontzertu hauek antolatzen.

Herriari, musikaren aberastasuna eskeintzea da ekimen honen helburua. Horrela musika klasikoa, instrumentala, bokala, bakarlariak eta taldeak parte hartu izan dabe ekitaldi honeetan.

Aurten be, San Martin XVI kontzertuan Nuria Orbea sopranoa eta Rafa Montero gitarra irakasleak kontzertu klasikoa eskaini euskuen.

- **AZAROA: Sta Cecilia**

Musikarien egun hau zapatuz ospatzen dogu. Azaroaren 25ean San Martin eleizan, 20:00etako meza abestu genduan, eta gero taldekideok afaltzera joan ginen.

- **ABENDUA: Olentzero**

Zamudioko Kamara Korala sortu zanetik eta bere estatutoetan adierazten dauanlez, euskal ohiturak eta folklorea lantzea da bere eginkizunetariko bat. Horrela bere sorreratik, Olentzeroren abestia eta baserriz baserri abesteko ohituraz jarraitzen dogu.

Gaur egun, udaletxeko deiagaz eta herriko beste taldeakaz batera herrian antolatzen dan ekitaldean parte hartzen dogu.

Egun horretan goizean zehar eta eguerdirarte, Zamudioko baserrietatik abestu genduan.

- **ABENDUA: Txorierriko Gabon kontzertuak**

Derioko Ipar-Alde abesbatzak urtero antolatutako kontzertu honeetan parte hartzen dogu.

Abenduan eta Gabon inguruan, Txorierriko herrietan eskaintzen dira kontzertuak.

Saio honeetarako Gabon kanta lantzen doguz.

Abendauren 17an, Sondikan izan ginen, eta 2007ko urtarrilaren 6an Derion.